

TXANTXIKU ARRUNTA, AITA ARDURATSUA

Testua eta argazkiak: Jose Ramon Aihartza

TXANTXIKU arrunta (*Alytes obstetricans*) anuru txikia dugu, txaparra, apo itzurakoa, baina guruin parotoideorik gabea, eta 4,2-4,6 cm-ko luzera izaten du muturretik uzkira. Begi lateralak oso nabariak dira alde dortsalean, eta urre- edo zilar-koloreko irisa, beltzez zipriztindua, eta beginini bertikala ageri ditu. Azken ezaugarri hau oso egokia gertatzen da txantxikua identifikatzeko. Izan ere, Euskal Herriko anfibioen artean txantxikua bait da beginini bertikala duen bakarra. Azala zimurra du alde dortsalean, eta bikortsua alde bentranean. Kolrazioari dagokionean, aldakorra izan daiteke oso oro har, eta alde dortsalari begira, kolore gris edo arreak (batzuetan hori-berdeskak, ilunak edo argiangoak) izaten dira nagusi. Alde bentrala berriz, gris argia, zuria edo horiska izan daiteke; orbainik gabea.


Anfibio honen aktibitatea, ilunabarrean hasi eta gauean zehar mantentzen da. Egunez, eta euririk egiten ez badu behintzat, zuhaitz edo harri azpitan, arteka natural edo artifizialetan, hormazulotan, edo mehategi eta kobazulotan ezkutatuta egoten da. Jokabide hau animaliak hezetasuna mantentzeko duen beharrarekin erlazionatutako



Txantxiku arruntaren fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.

FITXA TEKNIKOA	TXANTXIKU ARRUNTA
ESPEZIEA:	<i>Alytes obstetricans</i>
FAMILIA:	DISCOGLOSSIDAE
ORDENA:	ANURA
KLASEA:	AMPHIBIA

BANAKETA-MAPA



moldapen etologiko gisara ulertu behar da. Izan ere, eskualde menditsuetatik kanpora diskoglosido txiki hau nekez ikus daiteke, eta habitat idorretan ez da ageri. Sarritan, lorategietan eta beste giza erai-


kuntzetan aurki daiteke, hala nola trenbide ertzetan, kale bazterretan, eta abarretan. Adibide modura, Deustuko trenbideetan —Bilbon—, populazio sendo eta iraunkorra ikusi ahal izan dugu azken ur-

Euskal Herriko Fauna

1



2



3



4



5



0 5 mm.

Alytes obstetricans:


- 1.- Anplexu lunbarra.
- 2.- Errunketa eta ernalketa.
- 3.- Arrak, arrautz korda hanketan trabatu ohi du.
- 4.- Arra, arrautzak hanken gainean egokitu eta gero.
- 5.- Txantxiku-arrautza.

teotan, eta ugal garaian (martxotik urria bitartean) ia egunero entzun daiteke txantxikuak egiten duen kantua. Kantu hau *pip* musikal leuna izaten da, apo-hontzak (*Otus scopsak*) egiten duenaren antzekoa, eta ilunabarrez nahiz gaueko lehen ordutan somatzen da batez ere.

Txantxikua harrapakaria da, eta bere harrapakinak intsektu txikiak, zizareak eta bareak dira. Bestalde, bera ehizatzen duten etsaiengandik ihes egiteko defentsabideak ere baditu: alde batetik, txantxikuaren kolorazio kriptikoak ikustezin

bihurtzen du etsai posible askorentzat, eta bestetik, eta anfibio ugaritan gertatzen den modura, azala guruin pozoitsu hornituta dauka. Jaria ditzakeen toxinei baratzuri-usaina darie, eta ondorioz, txantxikuari berari ere usain horixe dario askotan.

Animaliatxo hau anfibio lehortarra dugu, eta ugal garaian baino ez da uretara hurbiltzen. Joera lehortar honen ondorioz, eta hau baimentzarren, txantxikuak zenbait moldapen jasan du bere etologian eta ugalketa-ereduari dagokionean.



Azala zimurra du alde dorsalean, eta bikortsua alde bentralean.



Arrak, lehorrean ernaldutako arrautzak, atzeko hanketan trabatuta eramaten ditu eklosioa gertatu artean.



Enbrioiak garatuta daudenean, eklosioa gertatzen da, larbak bizimodu akuatiko askeari ekingo diolarik.

Bere biologiaren alderdi deigarriena, ugalketari dagokiona da; beste edozein anfibioengandik bereizten bait du. Izan ere txantxikuak ez ditu arrautzak uretan erruten; baizik eta arrak, lehorrean ernaldutako arrautzak, atzeko hanketan trabatuta arrastaka eramaten ditu eklosioa gertatu artean.

Errunketa eta ernalketa honela gertatzen dira: emea topatuz gero, arrak anplexu lunbarrez harrapatzen du, hau da, emearen bizkar gainera igotzen da, eta, aurreko hankez baliatuz, atzeko hanken aurretik eusten dio emeari. Ondoren, atzeko hankez, erritmikoki jo eta igurtzi egiten du emearen kloaka, mugimendua behin eta berriro errepikatuz. Prozesuak, osotara,

Euskal Herriko Fauna

40-90 minutuko iraupena izaten du. Orduan, atzeko hankez emearren kloaka zapaldu egiten du, hankak ia bertara sartuz, eta 20-100 arrautza horiska handi samar kanporatzea lortu arte.

Honela errundako arrautzak lehorrean garatzeko moldatuta daude, eta gainerako anuru gehientsuenetan ez bezala, likidoz osatutako ganbara kapsularra garatzen da arrautza bakoitzaren inguruan, hauek errun eta berehala. Ganbara kapsular honek ur-biltegiarena egiten du, arrautzaren deshidratazioa eragotziz. Arrautzak bestalde, zorro luze batean sartuta daude, eta lo-

**Zapaburu
garapena,
oro har, 2-3
hilabetekoa
izan ohi da.**



**Euskal
Herriko
anfibioen
artean
txantxikua
da beginini
bertikala
duen
bakarra.**

karri bat eratuz kanporatzen dira. Une horretan, arrak ernaldu egiten ditu (kanpo-ernalketa gertatzen da beraz), eta atsedenditxo baten ostean, arrautzez osaturiko lokarria atzeko hanketan trabatzeari ekiten dio, gerri pelbikoaren gainean sorta bat eratuz antolatzen dituen arte. Arrautzak bizkarrean eramateak ez dirudi arraren jokabideak aldarazten dituenik, eta ez eragozpenik sortzen dionik ere. Areago, arrau-

tzak zaintzeak lan bakarra eskatzen dio arrari, hots, gauero ura bilatu eta arrautzak denboralditxo batez bertan sartuta edukitzea, berauen ganbara kapsularrak bete daitezten.

Garapen enbrionarioaren iraupena tenperaturaren arabera da, eta 24-44 egunez luza daiteke. Enbrioiak garatuta daudenean, eta gaueroko uretaratzea aprobetxatuz, eklosioa gertatzen da, larbak (zapaburuak) bizimodu akuatikoko askeari

ekingo diolarik. Lehen eklosioak gertatzen direla somatzen duenean, arrak arrautz mordoak askatu egiten du uretan.

Eklosionatu berri diren zapaburuak 14-17 mm-ko luzera izan ohi dute, eta hilabete batzuen ostean 40-80 mm izateraino hel daitezke. Zapaburu hauen garapena, oro har, 2-3 hilabetekoa izan ohi da, eta metamorfosia amaitu eta gero eratzten den txantxiku *helduak* 20-25 mm-ko luzera izaten du. Dena dela, garapen larbarioaren eta metamorfosiaren iraupena kanpo-baldintzen arabera da, eta baldintza klimatikoak desegokiak direnean zapaburuaren hibernazioa ere gerta daiteke, metamorfosiaren iraupena urtebeterarte ere luzatuz. Muturreko adibidetzat, Pirinioetan, 2.400 m-tan kokatutako ibai batean aurkitutako zapaburuaren adina 20 urtekoa zela frogatu da!

Txantxiku arrunta, Europan, hegomendebaldeko eskualdean aurki daiteke, eta Afrikan Marokkon. Hala ere, eta Iberiar penintsulan erdialdetik behera, 1.000 m-tik gorako altitudeak dituzten eskualde menditsuetan bakarrik ikusi da.

Euskal Herriari dagokionean ordea, eta bertako klima hezea dela medio, ia lurralde osoan ageri dela esan daiteke, Nafarroako hegoaldean izan ezik. Izan ere, anfibio honek edozein motatako errekurtsioez baliatzeko duen erraztasunak, habitat desberdin askotara moldatzeko aukera eskaini dio. Beraz, espezieak populazio sendoak dauka Euskal Herrian, eta ez dirudi berauen iraunkortasuna inondik inora ere arriskuan dagoenik.

**Anfibio
honen
aktibitatea,
ilunabarrean
hasi eta
gauean
zehar
mantentzen
da.**

